

# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

#### 1

*AGINDUA, 2016ko abenduaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan lurralde-zuzendariaren kargutik kentzea xedatzen duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Jon Iñaki Urbina Garcia de Vicuña jauna Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzako lurralde-zuzendariaren kargutik kentzea (kodea: 511786/6), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2016ko abenduaren 23tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 23a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.